

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2006KO IRAILAREN HOGEITAZORTZIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko irailaren hogeitazortzian, arratsaldeko zortziretan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ohiko batzaraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA BIDEZKO BADA: 2006-07-27.

Alkate Lehendakari andreak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenerako aurkeztutako aktei buruz, korporazioko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta zinegotziak zera dio gaztelerazko aktan bilera bertatu direnen artean bere izena azaltzen dela, eta ez zela bileran izan. Gainerantzean akta zuzen dago, ez baita da azaltzen gaien eztabaida eta bozketetan.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkezten ez denez, bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dute 2006-07-27ko akta, azalduko aipamena kontuan izanik.

2.- MOZIOA: PABLO IBAR

Alkateak textua irakurtzen du:

Mozioa: FLORIDAKO GOBERNUARI ESKATZEA PABLO IBAR, ESPAINIAKO HERRITARRAREN EPAIKETA ERREPIKATU DEZALA.

Florida Estatuako gobernadoreari ondorengo eskariak helaraztea erabakitzen dugu:

1.- Zumaiako Udalak Florida Estatuako gobernadore den Jeb Bush jaunari eskatzen dio berrikusi dezala Pablo Ibar Espainiako herritarraren kasua, eta epaiketa errepikatu dezala berme juridiko guztiekin.

2.- Zumaiako Udalak irmo aldarrikatzen du heriotza zigorraren aurka dagoela, hori ezartzea ankerra eta krudela delako.

3.- Zumaiako Udalaren jarrera honen berri ematea alde batetik, Espainiako Gobernuako Presidenteari, Kanpo Arazoetako ministroari eta Diputatuen Kongresuko nahiz Senatuko presidenteei, Pablo Ibar Espainiako herritarra denez, bere aldeko ekintza instituzional eta diplomatikoak eskatzeko. Bestalde, Pablo Ibarren euskal jatorria kontutan hartuz, euskal erakunde guztiei dei berezi bat egiten diegu, denon artean, hain oinarritzkoa den bizitzarako eskubidea defendatzeko beste saikera bat egin dezagun.

Alkateak bozemaileen batzordean gaia aztertu dela dio. Bertan adierazi den bezala funtsean, Santoñako Udaletxean onartu den mozioaren textua onartzea proposatzen da, zenbait egokitzapenekin.

Pablo Ibarren aitarekin hitzegin duela gaineratzen du. Floridan Estatuako Gobernadora hautatzeko hauteskundeak dituztela eta agian aldaketa izanez gero, epaiketa berrikusteko aukera izan dezaketela azaldu dio.

Giza eskubideen diputatu den Marin anderarekin ere hitzegin dut.

PSOE-ko ordezkariak, mozioa onartzeko inolako arazorik ez daukatela dio. Soilik iradokizun bat, mozioaren gaztelarazko textuan "exigir" aditza "instar" aditzaz ordezkatzeko, egokiago gelditzen da inposatu ordezkatzeko.

Alkateak aldaketa ontzat ematen dela dio.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 13 (5 E.A.J, 3 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: 13 (5 EAJ, 3 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)
).

Aho batasunean ERABAKI DA:

EAJ-ak aurkeztu duen Ibarri buruzko mozioa onartzea.

3.- HAZIENDA: MUSIKA PATRONATUKO 1.GO KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Hazienda Batzordeko lehendakariak, batzordean aztertutako gaia dela dio.

Aurrekontuen luzapenean Patronatuak, Musika Eskolari dirulaguntza azalpenean 50.335,68 €ko kopurua dauka izendatuta. Kopuru hau 9.184,00 €tan igotzea proposatzen da.Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin estaltzen delarik.

Funtsean hauxe da kreditu aldaketaren proposamena. Dirulaguntzaren gehitzea gaur egun Musika Eskolak duen egoera finikitatu eta hemendik aurrera etapa berri bati hasera emateko.

Proposamenaren berri ematen du:

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
480,01	Musika Eskolari dirulaguntza	50.335,68	9.184,00	59.519,68
GUZTIRA				

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
870,02	2005eko gerakina	9.184,00	
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA			

Zumaian, 2006ko irailaren 4an

IZUSTARRI Taldeak Kreditu aldaketetan beraien botuaren zentzua zein den jakina dela dio, baina kontuan izanik kreditu aldaketa proposamen honetan , Musika Eskolaren egoera berezia dagoela tartean, abstentzioa bozkatuko dutela.

Ekaina maiatza aldera IU-ko ordezkariak batzordean galdetu zuen Musika eskolarekin zer gertatzen zen eta ezer etzela gertatzen erantzun zitzaion. Baina gerora ikusi dugu, zerbait bazela, izan ere Gobernu Batzordeko akta batean eskari galderetan aipamen bat jasotzen bait da.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak esperientziak beti berdin ibiltzen direla erakusten duela erantzuten du, urtean behin edo bitan tesoreria zailtasunak izaten dituztela.

Ondorioa hau da: tesoreria zailtasunak gaingitu ondoren urteko ekitaldian osotasunezko zenbakiak kuadratu egiten dutela.

Baina hau urteroko gauza izaten da.

Aurten guzti honi, beste historia bat erantsi behar izan zaio, zuzendaritza aldaketarena. Lehengo zuzendaritzak laga egin du eta zuzendaritza berria hasi da.

Beraz likidazio bat egin da eta une honetatik aurrera etapa berri bati hasera emango zaio.

Akordioak lotu nahian gabiltz, harreman berriak hitzarmen bidez jasotzeko.

Alkateak dio behin baino gehiagotan izan ditugula horrelako gora beherak. Kreditu aldaketa, joan den urteko zuloa estaltzeko proposatzen da.

Musika Eskolarekin indarrean dagoen hitzarmenaren arabera Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza honela banatzen da: zati bat Patronatua-Udalarentzat da eta beste zati bat Musika Eskolarentzat.

Nahiz eta hitzarmenaren bidetik ateak zabalik uzten diren dirulaguntza osoa Musika Eskolari emateko.

IZUSTARRIk Eusko Jaurlaritzaren banaketa era horretan egitearen zergatia galdetzen du.

Patronatuak bere gain hartzen duen dirulaguntza zatia eraikuntzari lotzen zaio eta bertan sortzen dituen gastuak estaltzeko erabiltzen dela erantzuten du EAJ-k.

IU-ko zinegotziak abstenitu egingo dela aurreratzen du. Berak aurrekontueri aurkezturiko enmendakinetan igoerak proposatzen zituelako eta ez direlako egin.

Musika eskoletako finantzaketa Jaurlaritzaren arabera era honetan egin behar da :
% 33 Eusko Jaurlaritzak, % 33 Udalek eta beste % 33-a gurasoek.

Alkateak dio, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaren kopurua jaitsi egin dela, eta nola litekeen planteamendu horiek egitea beraiek ere betetzen ez dituztenean.

Musika Eskolaren sorrera zein izan zen gogorarazten du. Etxeetan Solfeo eta piano klaseak ematen zituzten irakasleak zeudelako sortu zen eta beraientzako erosoagoa zelako udal lokaletan klaseak ematea etxeetan eman ordez. Hau Eusko Jaurlaritzak bultzatu zuen Musika Eskolaren ideiarri lotu eta sortu zen Zumaiako Musika Eskola. Udala beraiekin akordioetara iritsi eta Lokalak uzten zizkien. Udala arduratzen zelarik lokal horien mantenuaz.

Osoatasunezko eskema hau izan zen, eskaintza era zabalagoan eta eraginkorragoan jasoaz.

Ondorengoak izan dira diru premiak urtez urte areagotzen joatea, matrikulak, Eusko jaurlaritzaren soldadak finantzatzeko dirulaguntzak ematea ...

Gaur egungo hitzarmenean aurrirakusten da, Musika Eskolak, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza osoa jaso dezakela.

Baina horretarako kreditu aldaketa onartu behar da. Eta era honetan etapa bat amaitu eta beste bati hasera eman defizitik gabe.

Hazienda Batzordeko lehendakariak dio Udaleko Hazienda batzordea, ikuspuntu ekonomikotik Musika Eskolaren babesle izan dela Kulturako Batzordea ikuspuntu didaktikotik izan den gisan.

Kultura Batzordeko Lehendakariak dio, klaseak hastear daudela eta Udalaren aldetik besteak beste malgutasuna eskatu zailea ordutegiak ezartzerakoan.

EA-ko bozemaileak egoera hau aurrekontu ezaren ondorio dela dio. Aurrekontuena aldebatetara utzita, eskuartean daukaguna aspaldiko arazoa dela aitortu behar da. Eta ez bakarrik Zumaiaren beste herri askotan ere bai. Musikak ez du etekin ekonomikorik, musika kultura da.

Faltan botatzen dena planteamendu orokor bat da proiektu bat musika munduan dabiltzanak Udalari aurkeztea eta kontsentsu bat lortu horren inguruan arazoari irtenbidea emateko. Kreditu aldaketak partxe bat besterik ez dira, arazoaren osotasuna konpontzen ez dutena.

Arrazoi politikoengatik eta ez dugulako ezer eragotzi nahi abstenitu egingo gara.

PSOE-ko bozemaileak lehen ere Kreditu aldaketetan ados azaldu izan direla dio eta orain ere alde bozkatuko dutela. Jabetzen gara kreditu aldaketak ez duela arazoa konponduko, partxe bat direla, baina aurrera pauso bat da egitasmo sendo bat indartzen den bitartean eta beharrezko laguntzak jasotzen diren bitartean.

Kultur Batzordeko Lehendakariak proiektu sendo baten alde lanean gabiltzala adierazten du. Zentzu honetan zuzendaritza berriari adituak direnen aldetik proiektu bat aurkez zezatela eskatu genien. Proiektua aurkeztu, aurkeztu zuten, baina ukituak eman behar zaizkio. Garbi gelditu dadila ez garela soilik zenbakiekin lanean ari, ez dugu soilik ahalegin ekonomikoa egin.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 13 (5 E.A.J, 3 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: 7 (5 EAJ, eta 2 PSOE)

Abstentzioak: 6 (3 IZUSTARRI, 2 EA eta 1 EB-BERDEAK).

ERABAKI DA:

LEHENENGOA: Musika Patronatoko 1.go Kreditu Aldaketa proposamena onartzea.

HIRUGARRENA: Kreditu-aldaketa jendaurrean erakustea, hamabost egunez, erreklamazio-xedeetarako. Erreklamaziorik ez badago, akordioa behin betikoa izango da, eta espediente horrek Aurrekontu Orokorra oneste aldera ezarritako tramitazio bera izan behar du.

4.- ESKARI GALDERAK

Alkate-lehendakariak korporaziokideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

IZUSTARRI-ko ordezkariak Lan osasunari buruz udaberrian sartu zuten mozioari buruz galdetzen du.

Pertsonal Batzordeko Lehendakariak gai hori Pertsonal Batzordean aipatu zela dio eta Udalak alor horretan egiten duena azaldu zela.

IZUSTARRI-k zalantza azaltzen du eta argitze arren, Batzordeko Aktetan begiratzeko gelditzen dira.

IZUSTARRI-ko bozemaileak asteartean Udalerrian izan zen militarren bixitari buruz galdetzen du. Udalak honen berri ba zuen ? Komunikazioen bat izan genuen ?.

Alkatesak baietz erantzuten dio, fax bat igorri zutela astelehen arratsaldean. Ez zuen konkretuki noiz etorriko ziren adierazten. Legealdi haseran horrelako ekintza baten aurrean Udalaren ezadostasuna adieraziz bidali nuen idatzi bat gobernu delegaritzara, baina oraingoan ez nuen denborarik izan.

IZUSTARRI-ren iritzian goizean jeiki eta 50 militarrekin bapatean eta ezustean topo egitea inpresio potentea da. Gutxienez herritarrei informazioa pasatu, merezi duten ongi etorria emateko bada ere. Ez dugu ulertzen horrelako ekintzek zer aportatzen duten, herritarrak bildurtzea ez bada.

EAJ-k, IZUSTARRI-ri galdera hau zuzentzen dio: Oiartzungo Udalak izan ote zuen abixurik ETA-ren agerraldiari buruz.

IZUSTARRI-k ez dela gauza bera erantzuten du.

PSOE-k dio, ekintza militarrek ofizial egiten direla Udalei zuzenduriko komunikazio bidez, eta baita ere prentsan argitaratuaz. Kasu honetan Diaro Vascon irakurri nuen.

Gorporazioa osatzen duten Aderdi politikoak bat datoz bizi dugun prozesu politikoan, alde bakoitzak bere indarraren agerraldia egiten duela.

Galde eskaerarik ez dagoenez, beste gairik izan gabe, arratsaldeko zortziak eta berrogeitabost minutu direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA